

Industria Produksioa

16ko III. hiruhilekoa: Hiruhileko arteko Δ : %+3,8; Δ Metatua: %+0,6

IPlak %+3,8h/h egin du gora hirugarren hiruhilekoan, hiru hiruhilekoz jarraian beherantz egin ondoren. 2011koarekin alderagarria den maila lortu du.

Industria Produksioaren Indizeak %+3,8h/h egin du gora uztaila eta iraila bitartean, lehenengo hazkundera hiru hiruhilekoz jarraian beherantz egin ondoren. Abuztuko datu positiboa da, bereziki, hazkundera honen eragilea, irailean, ordea, zertxobait egin du behera berriro. Horrela, IPlak **2011ko erregistro altuenekin erkagarria den maila lortu du** eta **lehenengo bederatz hilabetetan %+0,6ko** hazkundera metatu du. **Ziklo adierazlea hedaldi fasean mantendu da** eta **abiada hartu du**, oraindik, pasa den urtean erakusten zuen indarra lortu ez duen arren.


Adar metalikoak dira bereziki hazkundera sortzen dutenak, batez ere **metalgintza eta produktu metalikoak, %+3,9h/h** (bi hiruhilekoz jarraian emaitza negatiboak izan ondoren), **makineria eta tresneria, %+4,5h/h**, eta **garraio-materialen ekoizpena, %+9,5h/h** (bigarren hiruhilekoz jarraian gorantz). Pisu txikiagoa duten arren, material elektroniko eta optikoen ekoizpena, %+7,9h/h, eta material elektrikoaren ekoizpenaren ekarpena, %+3,4%, positiboa da ere.

Adar ez-metalikoen artean, aipagarria da ere **altzari eta gainerako manuflakturen** produksioaren ekarpen positiboa, **%+7,3h/h**, baita **energiaren industriarena, %+1,7h/h**, eta **industria kimikoarena, %+3,3h/h**. Ehungintzak gora egin du ere, %+3,9, baina bere pisua txikiago denez, bere ekarpena ere txikia da.

Behera egiten dutenen artean, **elikagaien industria, %-3,2h/h**, eta **zur, papera eta arte grafikoaren industria, %-1,9h/h**, dira hazkundera kalte handien egiten diotenak. Kautxu, plastiko eta bestelako produktuen industriak, %-0,3h/h, erauzketa industriak, %-13,3h/h, eta farmazia-industriak, %-13,1h/h behera egin dute ere.


Industria Produksioaren Indizea

Serie zuzendua eta joera



Industria Produksioaren Indizea

Ziklo adierazlea



Oharra: Behien-behineko datuak dira eta bi motatako berrikuspenen menpe daude; Eustaten aldetik, datu gordinei dagokienez, eta *desestazionalizazio* ereduari lotutakoak, datu berriak eta datu gordinen zuzenketak kontutan hartzerakoan.

Gipuzkoako Industri Ekoizpenaren Indizea eta dituen osagaiak
Egutegiaren arabera zuzendutako datuak. Urteko urterako aldaketa-tasa (%)

	Indize orokorra	Erauzte-industria	Industrias manufactureras									Energia elektriko a, gasa, lurrina eta airea	
			Totala	Metal									Metalaren arlokoak ez diren gainerako manuflakturen alorrak
				Metalak	Metalurgia eta produktu metalikoak	Material elektroniko a eta optikoa	Material elektriko a	Makineria eta tresneria	Garraiorako materiala	Metalaren arlokoak ez diren gainerako manuflakturen alorrak			
2013	-2,4	-30,9	-2,1	-2,3	-1,3	-2,8	-16,1	-0,3	-4,2	-1,7	-3,8		
2014	1,1	-4,7	1,7	1,0	3,2	4,2	-22,9	1,7	0,8	3,4	-2,8		
2015	3,5	16,1	3,6	4,2	4,1	17,4	4,9	9,8	-15,0	2,3	2,1		
Ira	3,6	-22,4	3,8	5,0	6,9	15,9	3,3	7,8	-11,2	0,8	4,2		
Urr	8,6	-17,9	9,1	11,3	12,1	10,1	10,1	16,2	-2,8	4,2	-0,6		
Aza	6,0	-1,8	6,8	9,4	5,8	20,4	5,1	22,2	-16,4	0,4	1,2		
Abe	1,5	12,9	1,3	-0,3	2,5	-2,0	0,2	2,7	-16,5	5,3	-0,3		
2016*	0,6	-19,4	1,3	1,6	0,5	1,3	-1,1	2,2	7,9	0,6	-5,0		
Urt	5,8	-19,5	7,7	10,2	5,5	13,1	4,8	24,1	-0,3	2,2	-6,7		
Ots	4,2	-12,2	5,6	6,5	9,0	-5,9	-5,0	14,4	-2,9	2,5	-9,0		
Mar	1,1	-16,2	0,4	1,4	1,2	-4,9	-0,6	0,0	9,1	-2,6	11,8		
Api	-3,2	3,7	-2,4	-3,3	-0,6	-4,5	-5,6	-9,4	14,9	0,1	-8,0		
Mai	-2,7	-21,1	-1,9	-1,9	-0,4	-4,3	3,0	-5,5	2,8	-2,4	-5,9		
Eka	-1,0	-37,8	-0,1	-0,8	-4,0	4,9	-1,3	0,7	5,8	1,8	-10,2		
Uzt	-4,2	-23,9	-3,6	-6,3	-6,9	-7,1	-10,5	-5,0	0,2	4,3	-10,3		
Abu	5,1	-23,9	5,8	8,4	2,0	25,3	5,5	6,1	31,8	1,4	0,0		
Ira	4,7	-28,4	5,1	7,8	1,4	7,7	8,0	7,8	31,4	-1,4	-3,8		